

“BIZIKOOP”

ETXEBIZITZA KOOPERATIBA, HIGIEZINEN ADMINISTRAZIO ETA BIZITEGI ERABILERAREN FEDERAZIOA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Izena eta tokiko erregimena

“BIZIKOOP” Etxebizitza Kooperatiba, Higiezin Administrazio eta Bizitegi Erabileraren Federazioa (hemendik aurrera “BIZIKOOP”) izenarekin, Federazio hau eratzen da, Estatutu Sozial horietan dauden arau eta ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legean xedatzen duenarekin bat etorriko dena, Eusko Legebiltzarrean onartuta, baita indarrean dauden gainontzeko legezko manuengatik ere.

2. Artikulua.- Nortasun juridikoa

BIZIKOOPek berezko nortasun juridiko, eta kontratatzeko eta bere helburuak betetzeko beharrezkoak diren ekitaldiak egiteko gaitasun osoa dauka.

3. Artikulua.- Xede soziala

Federazioaren xedea da:

- a) Bere Kooperatiba federatuak instituzional mailan ordezkatu eta, gainera, etxebizitza kooperatibako sektore guztietan egiteko bokazioz.
- b) Erakunde Publikoen aurrean, bere presentzia instituzionala sustatu.
- c) Izendatu, bere kasuan eta a hizkiarekin bat etorritik, etxebizitzaren sektore kooperatiboaren ordezkariak aurreikusita duten ordenamendu sozio ekonomikoaren entitate eta erakunde horietan, Erregimen Legal eta Instituzionalaren hobekuntzari dagokionez.
- d) Bere kideen artean harmonia mantendu.
- e) Prestakuntza jarduerak antolatu.
- f) Kooperatiba federatuen gabeziak estaltzeko egokiak diren instituzio edo jarduera horiek bultzatu.
- g) Bere kideen interes komunen zerbitzuak antolatu eta, bereziki, asistentzia juridikoa, ekonomikoa, kontuen auditoretza, eta ezaugarri teknikoena.
- h) Kooperatiben arteko erlazioak suspertu, bere modalitate guztietan, bai instituzionalak, bai enpresa izaerakoak.
- i) Beste entitateekin batera, mugimendu kooperatiboaren eta, batez ere, etxebizitzaren printzipioen hedapena sustatu.
- j) Bitartekaritza, adiskidetze, eta bere kasuan arbitraje prozeduren bitartez, Kooperatiba federatu edo bera eta bere bazkideen artean sor daitezkeen gatazketan esku hartu. Funtzio hau zuzenean egin ahal izango da edo Bitartu-Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseiluaren Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuarekin dagoen bidezko lankidetzaren bitartez.
- k) Kooperatiba federatu eta bere bazkideen interesen aldeko defentsa handiagoari

laguntzen dizkioten ekintzak sustatu.

l) Kooperatiben Erregistroarekin elkarlanean aritu, han izena emanda duten elkartearen erroldaren gaurkotze eta garbiketa lanetan.

m) Federazio eta Kooperatiben parte hartze dinamikak sustatu, bai mugimendu kooperatiboan, bai gizartean bertan.

n) Kooperatiba berrien sorrera eta daudenen garapena sustatu.

ñ) Xedapen legal edo Federazioaren Batzarraren akordioek esleitutako izaera berdintsua duten beste edozein funtzio.

4. Artikulua.- Helbide soziala

BIZIKOOPEk 48013 Bilbon (Sabino Arana kalea, 35-behea) edukiko du bere helbidea, tokiz aldatzeko askatasunez, betiere udalerrri berean, bere Kontseilu Errektoreak hartutako akordioaren bitartez.

5. Artikulua.- Lurralde eremua eta funtzionala

Federazioak Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eremura mugatzen den jarduketa dauka.

6. Artikulua.- Estatutu Sozialen aldaketa

Estatutu Sozialen aldaketa Batzar Orokorrak adostu beharko du, ondorengo baldintzen aldiberekotasunarekin:

a) Kontseilu Errektoreak edo Kooperatiba elkartuen %25ak, gutxienez, idatzizko txosten bat azal dezala proposamenaren justifikazio xehatuarekin.

b) Deialdian, beharrezkoa den argitasunarekin, aldatu behar diren zatiak azal ditzala.

c) Deialdiaren iragarkian, proposatutako aldaketaren eta berari buruzko txostenaren testu osoa, eta dokumentu horien emate edo doako bidalketa eskatzeko elkartu guztiei dagokien eskubidea jasota egon dadila.

Akordio hori Euskadiko Kooperatiben Erregistroan erregistratuko da.

II. KAPITULUA

FEDERAZIOAREN EGITURA, FUNTZIONAMENDUA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

I. ATALA. FEDERAZIOAREN EGITURA

7. Artikulua.- Kideak

Federazioa Euskal Autonomia Erkidegoan helbide soziala duten Etxebizitza Kooperatibek osatuko dute; zeintzuek Batzar Orokorrak, Kontseilu Errektore edo bere Administradore Bakarraren akordio irmoaren bidez, bertan lotura izatea erabakitzen duten.

8. Artikulua.- Onarpena

Etxebizitza Kooperatiba orok, izaera hori edukitzeagatik soilik, BIZIKOOPi eska diezaioke atxikimendu, ate irekiaren printzipio kooperatiboari jarraituz. Printzipio horrek alor honetan Federazioak burutzen dituen jarduketak gailenduko ditu.

Federazioan sartzeko eskaera idatziz egin beharko da, eta horri administradore edo Kooperatiba eskatzailearen Batzar Orokorraren ziurtagiriaren akordioak lagunduko dio.

Federazioaren Kontseilu Errektoreak Kooperatiba eskatzaileak aurkeztutako onarpen eskabideei buruz erabakiko du, eskaera egin eta 60 egun baliodunetan. Epe hori amaitu ondoren ez badago erabaki zehatzik, Kooperatiba eskatzailea onartua izan dela ulertuko da.

Onarpen eskabidearen inguruan, Kontseilu Errektorearen erabakia ezezkoa izango balitz –bidezko arrazoian oinarritua–, akordioa hartu eta ondorengo 15 egunetan, idatzi arrazoitu baten bidez, ezagutaraziko zaio Kooperatiba eskatzaileari. Era berean, Kontseilu Errektoreak informatuko du, ospatuko den lehen Batzar Orokorrean, ezezko hori emateko hartutako ebazpen eta zergatiei buruz.

Federazioan sartzeko ezezkoa jaso duen Kooperatibak, Kontseilu Errektorearen erabakiaren aurka jar dezake errekurtsioa Batzar Orokorraren aurrean, ezetzaren akordio horren jakinarazpena jaso eta 20 egun baliodunetan.

9. Artikulua.- Baja

Edozein Kooperatiba federatuak, une oro borondatezko baja emateko aukera izango du Federazioan, zentzu horretan Federazioari igorritako jakinarazpen idatziaren bidez.

Estatutu Sozial hauetako 7. Artikuluan ezartzen den baldintzetako bat galtzen duten Kooperatibek, baita dagokion urtean euren kuota sozialak ordaindu gabe dituztenek ere, beharrezko baja eman beharko dute bazkide gisa; aldez aurretik hipotesi horietarako ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legearen arabera araututa egon behar den tramitazioa bete ondoren.

10. Artikulua.- Bete beharreko organoak

Federazioaren bete beharreko organoak dira:

- Batzar Orokorra
- Kontseilu Errektorea

II. ATALA. BATZAR OROKORRA

11. Artikulua.- Kontzeptua

Batzar Orokorra Kooperatiba elkartuen bilera da, berak eskuduntzak dituen gaietan eztabaidatu eta akordioak hartzeko osatuta.

Bai kooperatiba elkartu guztiak, bai disidente eta ez laguntzaileak Batzar

Orokorren akordioen pean jartzen dira, ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legearen 39. Artikuluak araututako aurkaratze eskubideari kalterik egin gabe.

12. Artikulua.- Eskuduntzak

Federazioaren gai sozial guztiak Batzarrean eztabaida daitezke, ondorengo akordioen hartze eskusiboa dagokiolarik:

- a) Kontseilu Errektorearen kideak, boto sekretuaren bidez, izendatu eta ezeztatu.
- b) Kudeaketa soziala zentsuratu, urteko kontuak eta bere erabilera ekonomikoa onartu.
- c) Federazioaren aurrekontuak onartu eta onartua izateko kuota ekonomikoak edota aldizkakoak adostu, baita bere eguneratzea ere.
- d) Betebeharrak eman.
- e) Barne Araudia onartu eta aldatu.
- f) Kooperatiben beste egitura eta asoziatiboari atxikimendua edo berauen banaketa adostu.
- g) Kontseilu Errektoreko kideen aurrean, ardura akzioa gauzatu.
- h) Estatutu Sozialen aldaketa adostu.
- i) Ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legeak eskusiboki esleitzen dizkionak.

13. Artikulua.- Osaketa

Batzar Orokorra Federazioa osatzen duten Kooperatiba bakoitzetik izendatzen den kide ordezkari batekin osatuta egongo da.

14. Artikulua.- Deialdia

Bat. Batzar Orokorra Kontseilu Errektoreak deituko du.

Bi. Urteko Ohiko Batzar Orokorra deituko da, ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legearen 33. Artikuluaren 5, 6 eta 7. ataletan araututa dauden betekizunekin bat eginez.

Hiru. Aurreko sailari ez dagozkien Batzar Orokorren saioek, aparteko izaera izango dute eta lehen aipaturiko Legearen 33. Artikuluaren 3. sailean agertzen diren baldintza eta betekizunetan deituak izango dira:

- Kontseilu Errektorearen beraren ekimena dela medio.
- Kooperatiba federatuen zenbaki batek eskatuta, boto sozialen %10 gutxienez ordezkatzeko dutenak, eta Kontseilu Errektoreari egindako eskakizun frogagarri baten bidez, aztertu behar diren puntuak dituen Gai zerrenda barne duelarik.

Era berean, Ez ohiko Batzar Orokorrek ospa daitezke, baldin eta Kontseilu Errektoreari egokia iruditzen bazaio, aurrez Kooperatiba federatuen %10ak gutxienez idatziz eskatzen badu, guztien errolda soziala kontuan izan gabe.

Kontseilu Errektoreak deialdi eskaera honen desegokitasuna balioztatuko balu, eskatzaileei erantzun beharko die, bere ukapenaren arrazoi eragingarriak erakutsiz.

15. Artikulua.- Boto eskubidea

Kooperatiba bakoitzak Batzar Orokorrean jarduera kooperatibizatuaren arabeko botoen zenbaki bat izango du Federazioan biltzeko, bere errolda sozialaz balioztatuta.

Berari jarraikiz, boto sozialen esleipena horrela izango da:

- a) 10 etxebizitza arteko kooperatibek: puntu 1.
- b) 10 eta 50 arteko kooperatibek: puntu 1 gehiago 5 etxebizitzako.
- c) 50 etxebizitza baino gehiagoko kooperatibek, b) muga gorenetik puntu 1 gehiago, 10 etxebizitzako.

Botoen zenbakiaren esleipenari dagokionez, Batzarra ospatu zen aurreko urtearen bukaeran zegoen etxebizitza kopurua hartuko da erreferentzia gisa.

Hala eta guztiz ere, inolako Kooperatiba federaturik eduki ahal izango du Batzar Orokorren ehuneko 20ko (%20) boto sozialen baino gehiago.

16. Artikulua.- Erregimen osagarria

Deialdiaren erregimena, gehiengoak, funtzionamendua, akordio sozialen aurkaratzea eta berari dagozkion gainontzeko kontuak, Batzar Orokorri ezarriko zaien heinean, ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legearen V. Kapituluko 1. Atalean idatzita dagoenaren arabera eraenduko da.

III. ATALA. KONTSEILU ERREKTOREA ETA ZUZENDARITZA

17. Artikulua.- Kontseilu Errektorea

Kontseilu Errektoreari bakarrik dagokio Federazioaren gobernu, kudeaketa eta ordezkaritza, ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Lege edo Estatutu Sozial hauen aldetik beste organo sozialei espresuki erreserbatu gabeko eskumen guztiak erabiliz.

18. Artikulua.- Kontseilu Errektorearen osaketa

Bat. Kontseilu Errektorea 5 kooperatiben ordezkari titularrekin egongo da osatuta, eta euren aginduak 5 urte iraungo du.

Bi. Batzar Orokorrak hautagaiak diren guztien artean Kontseilariak aukeratuko ditu, ondoren datorren hiru atalaren arabera.

Aldarrikatutako hautagaiak Kontseilarien kopuruarekin bat datozenean, berauek automatikoki aukeratuak izango dira aho batez, bozketa sekreturik gabe.

Hiru. Kontseilu Errektorea aukeratzeko, Kooperatiba federatu bakoitzak Kontseilari titularra izateko hautagai bat aurkezteko eskubidea edukiko du, baita beste bat ordezeko gisa ere, biak bertako bazkideak izanik.

Kooperatiba federatuak ordezkatzuz aurkeztu diren hautagaiak dauden hutsuneak betetzeko nahikoak ez balira, Kontseilu Errektoreak alde hori betetzeko beharrezkoak diren hautagaiak izendatuko ditu.

Lau. Aukeragarrien zerrenda, aurreko atalak dioenaren arabera, aurkezten diren hautagaiekin geldituko da osatuta. Kontseilari moduan izendatuak izango dira, boto baliodun gehiago lortzen dituzten hautagaiak.

Bost. Federazioaren Kontseilu Errektoreko titular gisa aukeratuak diren bazkideen Kooperatibek, ordezekoarengandik ordezka ditzakete, agintean gelditzen zaien epealdian zehar.

Sei. Ordezkeri titularrak Kooperatiban bajaran ematen badu eta izendatutako ordezkoa ezin bada sartu; Kooperatibak, Federazioaren Kontseilu Errektorearen aldetik egiten zaion eskakizunagatik hilabete bateko epean, beste ordezkari titular eta ordezkoa izendatu beharko ditu, eta izendapen horiek ospatzen den lehen Batzar Orokorak baieztatu beharko ditu.

19. Artikulua.- Kontseilu Errektorearen funtzionamendua

Presidenteak Kontseilu Errektorea deituko du, bi hilabetetik behin, eta saioan bera osatzen dituzten kideen erdiak gehi bat agertzen badira, bere osaketa zuzena izango da.

Akordioak gehiengo arruntaz hartuko dira; legezko xedapena dela medio, gehiengo kualifikatua exijitzen denean salbu.

Zuzendaritzak Kontseilu Errektoreko saioetan parte hartuko du ahotsarekin, baina botorik gabe; eta bertara daitezke ere, Kontseilu Errektoreak gonbidatzea egokia ikusten dituen beste pertsona batzuk.

20. Artikulua.- Kontseilu Errektorearen karguak

Kontseilu Errektoreak, bere kideen artean, Presidente, Presidenteorde eta Idazkariaren karguak aukeratuko ditu.

21. Artikulua.- Kontseilu Errektorearen erregimen osagarria

Ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legearen 42, 43, 47, 48 eta 49. Kapituluetan hurrenez hurren ezarrita dagoena, karguan aritzeko eta bere akordioen aurkaratzerako bateraezintasun, ordain eta arduraren erregimenari aplikagarria izango da.

22. Artikulua.- Zuzendaritza

Kontseilu Errektoreak Zuzendaritza Orokor bat izenda dezake, zeinen eskuduntza eman dakien ahalmen eta botereei zabalduko den, betiere

Kontseilu Errektorearen kontrolaren pean.

IV. ATALA. ELKARTE SEKTORIALAK

23. Artikulua.- Elkarte Sektorialak

Federazioaren barruan, Etxebizitza Kooperatiben hainbat motetako ondorengo Elkarteak sor daitezke:

- Banakako jabego izateari buruzko kooperatibak.
- Jabego kolektibo izaerari buruzko kooperatibak (erabilera lagatze).
- Ondasun eta elementuen administrazioko kooperatibak.
- Alokairuzko kooperatibak.
- Aparkalekuak hornitzen dituzten kooperatibak.
- Eraikinen birgaitzeaz arduratzen diren kooperatibak.

Elkarte bakoitza Federaziora afiliatuta dauden mota bereko Kooperatibez osatuta egongo da, eta Kooperatiba bakoitzeko Elkarte bat egon daiteke soilik.

24. Artikulua.- Helburuak

Elkarteen helburuak dira:

- Mota bakoitzeko Kooperatiben interesen adierazpen bideak eraiki.
- Elkartearen Kooperatiben parte hartze dinamikak bultzatu, bai euren gai bereziekin, bai Federazioaren gai orokorretan.
- Federazioaren diseinu eta politika orokorraren garapenean elkarrekin lan egin.
- Mota bakoitzeko Kooperatiben garapenari lagundu, Federazioaren bitartez, zerbitzuak eta azpiegiturak ezarriz.
- Federazioaren egitura sustatu eta finkatu.

25. Artikulua.- Ordezkaritza

Federazioaren ordezkaritza, Elkartearen aldetik, berarengatik espresuki ordezkatu eta koordinatua beharko du izan, bere politika orokorraren eremuan.

III. KAPITULUA

FEDERAZIOAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

26. Artikulua.- Federazioaren baliabide ekonomikoak

Federazioaren baliabide ekonomikoak izango dira:

- a) Kooperatiba federatuak emandako kuoten ondorioa direnak.
- b) Euskal Autonomia Erkidego, Lurralde Historikoetako organo instituzional eta gainontzeko entitate publiko zein pribatuen aldetik ematen zaizkien diru kopuruak.
- c) Bere zerbitzu, prestazio eta ondasunetatik, orokorrean, datozen diru sarrerak.

d) Ondare, diru laguntza eta dohain bezala, jasotzen dituenak.

27. Artikulua.- Kuota sozialak

Kooperatiba federatuek eman beharko dituzten kuota sozialak zuzenean proportzionalak izango dira sustatutako etxebizitzekin, ondorengo formularen arabera:

- a) 10 etxebizitza arteko kooperatibek: puntu 1.
- b) 10 eta 50 arteko kooperatibek: puntu 1 gehiago 5 etxebizitzako.
- c) 50 etxebizitza baino gehiagoko kooperatibek, b) muga gorenetik puntu 1 gehiago, 10 etxebizitzako.

Puntuaren balioa urtero zehaztuko da, ohiko Batzar Orokorrean.

28. Artikulua.- Diru sarrera eta ordainketen baimena

Federazioaren diru sarrera eta ordainketek Kontseilu Errektore edo berak izendatzen d(it)uen pertsona edo pertsonen baimena izan beharko dute.

29. Artikulua.- Dokumentazio soziala

Beharrezkoa den dokumentazio soziala, baita Federazioaren kontabilitate liburuak ere, ondorengoak izango dira:

- a) Kooperatiba federatuen Erregistro Liburua.
- b) Batzar Orokor eta Kontseilu Errektorearen Akten Liburua.
- c) Liburu Nagusi, Kontuen Liburu eta Balantzeen Liburua.

30. Artikulua.- Informazio ekonomikoa

Kooperatiba elkartu orok Kontseilu Errektoreari Federazioan, data zehatz batean, dagoen egoera ekonomikoari buruzko informazioa idatziz eskatzeko eskubidea izango du; urteko kontuak onartu ziren Batzar Orokorrean emandakoaz gain.

IV. KAPITULUA

DIZIPLINAZKO ERREGIMENA

31. Artikulua.- Falta sozialak

Bat. Falta sozialak izango dira Federazioaren ordena instituzionalari egiten zaizkion diziplinazko urratzeak.

Bi. Falta sozialak, bere garrantzi, transzendentzia eta ondorio sozialei kasu eginez, arin, larri eta oso larri bezala sailkatzen dira.

Hiru. Falta sozial arinak izango dira:

- a) Deituta dauden Batzar Orokorretan parterik ez hartzea, justifikatutako ziorik gabe.
- b) Agindu estatutarioak eta funtzionamendu arauak ez betetzea aitzakiarik gabeko

ezjakintasuna dela medio.

Lau. Falta sozial larriak izango dira:

- a) Hitzezko edo obrazko tratu txarrak beste Kooperatiba federatuetako ordezkariari edo Federazioko langileari, objektu sozialaren garapenerako bilerak, lanen egiteak, jarduerak eta lan zehatzak direla medio.
- b) Federazioa ordezkatzeko duten jardueren parte hartzea Batzar Orokor edo Kontseilu Errektoreak hartutako akordioetan ezarrita dauden mailetatik beherago.

Bost. Falta sozial oso larriak izango dira:

- a) Eragozpen lanak eta organo sozial zein Federazioko karguekiko ageriko begirunerik eza, Federazioaren interes edo ospeari kalte eginez.
- b) Federazioaren sekretuak haustu, bere interesei modu larrian kalte eginez.
- c) Kooperatiba federatuaren baldintzaz gailendu, espekulazio edo legez aurkako jarduerak garatzeko.

32. Artikulua.- Zigorrak

Falta arinagatik kooperatibari ezarriko zaion zigorra idatzizko ohartarazpena izango da.

Falta larriak zigortuko dira idatzizko ohartarazpen edota 50etik 500 eurora doan diruzko zigor batekin.

Falta oso larriak zigortuko dira 501etik 5.000 eurora doan zigor batekin, edota ondorengo eskubide guztien edo bakarren baten etenarekin: bertaratzea, Batzar Orokorrean ahotsa eta botoa, baita Kontseilu Errektorean ere, bere kideak kargu sozialetarako hautesle eta aukeragarri izatea edo kanporatzea,aldi berean gertatzen diren egoeren arabera.

33. Artikulua.- Prozedura zigortzailea

Bat. Zigorren inposatzea, falta sozialak direla medio, Kontseilu Errektorearen eskuduntza da; alde zuzeneko dagokion espedientea irekitzearekin.

Bi. Karga orria Kontseilu Errektoreak bere barruan izendatzen d(it)uen instruktore bat, bi edo hiruk, gehienez, azaldu behar du(te); zeinek/zeintzuek erruztatutako Kooperatibari faltaren behin behineko kalifikazioa, zigorraren proposamen eta deskarguaren epea komunikatuko dio(te)n, eta komunikazio hori egiten denetik, epe horrek gutxienez hamar eguneko behar du.

Hiru. Kontseilu Errektorearen akordio zigortzaileak falta larri eta oso larriak direla medio, Batzar Orokorrearen aurrean apelatzeko moduak dira, jakinarazpenetik 30 eguneko epean.

Lau. Zigor guztiak betearaztekoak izango dira dagokion ebazpenaren epea amaitu eta hurrengo egunetik; ez bada aukera hori erabili edo behin behineko erabakia hartu bada.

V. KAPITULUA

BANATZE ETA LIKIDAZIOA

34. Artikulua.- Banatze eta likidazioa

Banatze eta likidazio erregimena ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legearen I. Tituluaren XI. Kapitulutik araututakoa izango da, aipaturiko Legeak "Kooperatiba" hitza erabiltzen duen tokian, "Federazio" hitzari buruz aritzen dela ulertuko delarik, Estatutu Sozial hauen arabera.

35. Artikulua.- Likidatzaileak

Likidatzaileak, zenbaki bakoiti eta hiru kide gutxienez, Federazioaren Batzar Orokorak izendatuko ditu.

36. Artikulua.- Sozietatearen Ondasunen erabilera

Ondasunak Banatzea, behin Federazioaren zor guztiak kitatuta, Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseiluaren esku jarriko da, etxebizitza arloko sustapen kooperatiboari zuzentzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseiluaren aurrean arbitrajea

Federazio eta Kooperatiba elkartu edo Federazioarenak izan eta elkartuen artean sortzen diren gai auzilariak, BITARTU-Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseiluaren Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren arbitrajearen pean jarriko dira, betiere bera gai izango balitz bere ezaguerarako.

Bigarrena.- Abokatu aholkulari

Bat. Federazioak, Kontseilu Errektorearekin bat etorriz, abokatu aholkulari bat izendatu beharko du; eta hori izan daiteke ere kooperatiba elkartuen abokatu. Abokatu horrek bai Batzar Orokorak, bai Kontseilu Errektoreak hartutako akordioak, eta inskribagarriak direnak, zuzenbidearekin bat datozen informatu beharko du.

Bi. Federazio eta abokatu aholkulariaren arteko erlazioa zerbitzuen errentamenduarena, profesional liberal gisa, izan daiteke; edo lan kontratu baten bidez.

Bi. Abokatu aholkulariak zabarkeria profesional baten aurrean modu zibilean erantzungo du Federazioaren aitzinean; hori guztia ekainaren 24ko 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legearen 73. Artikuluekin bat etorriz. Zerbitzuen errentamenduaren aldeko hautua egingo ez balitz; Federazioak, abokatuarekin batera, abokatu aholkulariaren karguaren betetzean Kooperatiba elkartuei sortu zaizkien kalteen aurrean erantzungo du.